

SAN MARKOKO MANKOMUNITATERAKO PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ HIRI HONDAKINEN EDUKIONTZIAK ATZETIK JASOTZEN DITUEN BILKETA-IBILGAILUAZ HORNITZEKO BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO BEREZIEN ORRIA.

**EZAUGARRIEN KOADROA**

KONTRATUAREN XEDEA/OBJETO DEL CONTRATO	KODEA/Codificación
SAN MARKOKO MANKOMUNITATERAKO PAPER-KARTOI ETA ONTZI ARINEN EDUKIONTZIAK ATZETIK BILTZEKO IBILGAILUAZ HORNITZEA	CPV:34144512-0 Zaborra trinkotzen duten ibilgailuak.

AURREKONTUA/PRESUPUESTO	
Zifratan/en cifra	Letratan/en letra
145.000 € (BEZa kanpo)	Ehun eta berrogeita bost mila euro (BEZa kanpo)

URTEKOAK/ANUALIDADES		
Ekitaldia/ejercicio	Zenbatekoa/importe	Aurrekontu xedapena Aplicación presupuestaria
2016	145.000 € (BEZa kanpo)	1 0000.624.162.10.01 2016

BURUTZE EPEA/PLAZO DE EJECUCIÓN ATZERAPEN ZIGORRAK/PENALIDADES POR DEMORA	
SEI (6) HILABETE	Eguneko zigorrak: KONTRATUAREN PREZIOAREN 1.000 EUROKO 3 EUROREN PROPORZIOAN

PREZIOEN BERRIKUSPEN FORMULA/ FORMULA DE REVISIÓN DE PRECIOS
EZ DAGOKIO.

BERMEAK/GARANTÍAS	
Behin Behinekoa/ Provisional	Behin Betikoa/ Definitiva
EZ DAGOKIO.	ESLEIPEN-ZENBATEKOAREN 100EKO 5

ENKANTEKO PUBLIZITATEKO GEHIENEZKO GASTUEN ZENBATEKOA/IMPORTE MAXIMO DE LOS GASTOS DE PUBLICIDAD DE LA LICITACIÓN
Argitalpenarengatik gehieneko zenbatekoa 1.500 eurokoa da.

OINARRIZKO PROPOSAMENA ETA HAUTABIDEAK/PROPUESTA BASE Y ALTERNATIVAS	
Onarpena/Admisión	Betebeharrak, modalitateak eta aspektuak/Requisitos, modalidades y aspectos
EZ	

**ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK/CRITERIOS PARA LA ADJUDICACIÓN**

	<b>Irizpidea</b>	<b>Haztapena</b>
1.-	Proposamen ekonomikoaren zenbatekoa.	40 puntura arte
2.-	Hornidura hobetuko duten beste prestazio batzuk	10 puntura arte
3.-	Hornitu beharreko ekipoaren ezaugarri teknikoak.	50 puntura arte

**ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA/ SEGURO DE RESPONSABILIDAD CIVIL**

EZ DA APLIKATZEN.

**BERME EPEA/PLAZO DE GARANTÍA**

GUTXIENEZ URTEBETE (1)

**BESTELAKO BALDINTZAK/ OTROS REQUISITOS**

-----

2016ko maiatzaren 5eko 22/2016. Lehendakaritzaren ebazpenez onartutakoa.

DONOSTIAN, 2016ko maiatzaren 6an

MANKOMUNITATEKO IDAZKARIA,

Izp./Fdo.: Xabier Loiola Aristi

# **SAN MARKOKO MANKOMUNITATERAKO PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ HIRI HONDAKINEN EDUKIONTZIAK ATZETIK JASOTZEN DITUEN BILKETA-IBILGAILUAZ HORNITZEKO BALDINTZA EKONOMIKO- ADMINISTRATIBO BEREZIEN ORRIA.**

## **I.- KONTRATUAREN EDUKIA**

### **1. KONTRATUAREN XEDEA**

Orri honen arabera egingo den kontratuak atzetik jasotzen diren edukiontzietan dauden hondakinak biltzeko operazio bakarreko ibilgailu biltzaile/trinkotzaileaz hornitu eta karrozeria gauzatzea du helburu. 12 m<sup>3</sup>-ko edukierako kaxa finkoa izango du eta San Markoko Mankomunitateak bere aginpideko hiri-eremuan ezarriak dituen paper-kartoa eta ontzi arinak bilduko ditu. Hori guztia, Orri honetan eta Baldintza Teknikoen Orrian dauden zehaztapenekin bat egingo da.

Xasisaz hornitzea eta karrozeria gauzatzea, baita Orrian eta Baldintza Teknikoen Agirian zehazten diren baldintzetan ekipa osoa bidali eta entregatzea ere sartuak daude.

Era berean, erabiltzeko eta mantentze-lanetarako eskatzen den dokumentazioa entregatuko da eta hornitutako ekipa erabiltzeko prestakuntza-ikastaroa irakatsiko da.

CPV-08 kodea: 34144512-0 Hondakinatarako ibilgailuak.

### **2. EPEA**

Kontratu honen xede den hornidura entregatzeko gehienez SEI HILABETEKO (6 HILABETE) epea izango da, kontratua sinatu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.

Epea igaro delako kontratistak atzerapena izango du eta Administrazioak ez du alde zuzenik mehatxatu behar.

San Markoko Mankomunitateak bere lurralde-eremuaren barruan eta nahikoa aurrerapenez emate-tokia zehaztuko du.

### **3. KONTRATUAREN AURREKONTUA**

Kontratuaren prezioa 145.000 eurokoa gehi BEZa izango da. Dena den, eskaintzaileek zenbateko hori hobetu ahal izango dute. Prezioaren barruan gastu guztiak sartuak egongo dira, garraioarenak eta matrikulazioarenak barne.

### **4. FINANTZAZIOA**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, jarduneko urteko aurrekontuaren kargura finantzazioa aurrez ikusia dago.

### **5. ORDAINKETA-MODUA**

Horniduraren prezioa hori entregatu eta hartzen denean ordainduko da eta, horretarako, aldez aurretik faktura aurkeztu beharko da.

Ordainketa bakarrean eta legez zehaztutako epean egingo da. Zenbatzen hasteko data faktura San Markoko Mankomunitatean sartzen den eguna izango da.

### **6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA**

Kontratu honetan ez dira prezioak berraztertuko, espedientean egiaztatzen den bezala.

### **7. BERMEAK**

Kontratuaren esleipendunak, onartutako eginbeharrak betetzen dituela bermatzeko, behin betiko bermea osatu beharko du eta zenbatekoa esleipen zenbatekoaren % 5 (BEZa kanpo) izango da.

Bermea osatzeko epea 10 lanegunekoa izango da, 21. klausulan aipatzen den eskea jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak 96. artikuluan xedatutako edozein bitarteko erabiliz osa daiteke. Eratua dagoela bitarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliz egiaztatu ahal izango da. Eskaintzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, Mankomunitateak ez du esleipena bere alde egingo.

Bermea Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak 102. artikuluan xedatutakoarekin bat itzuliko da, berme-epea amaitzen denean eta esleipendunak kontratu-eginbehar guztiak betetzen dituenean.

### **8. KONTRATUA GAUZATZEA**

Ondasunak Mankomunitateak finkatutako denboran eta tokian entregatu beharko dira, baldintza teknikoekin eta administrazio-klausulekin bat.

Kontratua kontratistaren arrisku eta zorira egingo da eta administrazioari entregatu baino lehen ondasunetan izandako galerengatik, matxurengatik edo kalteengatik kalte-ordaina jasotzeko ez du eskubiderik izango, administrazioa jasotzeko orduan atzeratu denean izan ezik.

Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean garatuko da eta ahalmen horiek erabiliko ditu, bai idatziz, bai ahoz.

Kontratistari edo bere mende dituen pertsoneri egotz dakizkiekeen ekintza edo ez-egiteengatik kontratuaren abiada egokia arriskuan jartzen denean, Administrazioak kontratua gauzatzeko orduan behar bezalako ordena lortu edo berreskuratzeko egokitzat jotzen dituen neurriak har ditzake.

## **9. KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK**

Kontratistak lanaren, gizarte-segurantzaren eta lanean segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete beharko ditu eta administrazioa ez betetzeagatik erantzukizunez salbuetsia geldituko da.

## **10. KONTRATUA GAUZATZEN ARI DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI SORTUTAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA.**

Kontratua gauzatzeko eskatzen diren eragiketen ondorioz sortutako kalte-galerez kontratista arduraduna izango da, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak 214. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## **11. KONTRATUAREN ALDAKETAK**

Administrazioak interes publikoaren arrazoiak direla-eta kontratua alda dezake, SPKLTBk 107. artikuluan aurrez ikusitako egoerak gertatzen direnean eta betiere horrekin lizitazioaren eta esleipenaren oinarrizko baldintzak aldatzen ez badira.

Arestian aipatutako aldaketak kontratistak derrigorrez bete beharko ditu.

## **12. HORNIDURA HARTZEA ETA BERME-EPEA**

Hornidura entregatzen denetik zenbatzen hasita gehienez hilabeteko epean, horiek hartzeari dagokion egintza formal eta positiboa gauzatuko da.

Hornidura hartua izateko baldintzetan ez dagoenean, berariaz jasoa geldituko da eta kontratistari akatsak konpondu eta hitzartutakoarekin bat hornidura berria egiteko argibideak emango zaizkio. Konpontzen edo ordezkatzan ez direnean, administrazioak kontratistaren kontura utziko ditu eta ordaintzearen betebeharrak salbuetsiko zaio edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Era berean, gutxienez urtebeteko (1) berme-epea zehazten da, legez hartzen den unetik zenbatzen hasita. Hori bermea izango da Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrek xedatuetaako.

San Markoko Mankomunitateak bermearen epean akatsak edo hutsak badituzte hornitutako ondasunak zaharberitu edo nahikoa ez balitz, konpontzeko eskubidea izango du.

San Markoko Mankomunitateak berme-epearen barruan kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiaren ondorioz nahi den helbururako hornitutako ondasunak gaituak ez daudela egiaztatzen bada eta ustez lehengoratzeta edo konpontzeta helburu hori lortzeko nahikoa ez bada, epe horren barruan ukatu eta kontratistaren eskura utz ditzake.

### **13. ZIGORRAK KONTRATISTARI EZ BETETZEAGATIK**

#### **A. KONTRATUA GAUZATZEKO EPEAK EZ BETETZEA.**

Kontratatistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua gauzatzeko epea betetzeari dagokionez atzerapena izango balu, administrazioak hori ebatzeta eta, ondorioz, bermea berreskuratzeko aukera galtzeta edo zigorra jartzeta aukera dezake. Bigarren kasuan egunero kontratuaren prezioaren 1.000 euroko 3 euroren proportzioa litzateke.

Atzerapenarengatik zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplora iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak kontratua ebatzi edo gauzatzen jarraitu, baina zigor berriak jartzeko ahalmena izango du.

#### **B. BETETZE AKASTUNA**

Prestazioa oker eskaintzen bada, Mankomunitateak kontratuaren aurrekontuaren % 10eko zigorra jar dezake.

## **14. KONTRATUA EBAZTEKO ARRAZOIAK**

Hornidura-kontratua ebazteko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak 223. eta 299. artikuluetan xedatutakoak dira.

## **15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK**

Administrazioari honako eskumenak dagozkie: kontratua interpretatzea, betetzeak eskaintzen dituen zalantzak ebaztea, interes publikoaren arrazoiak direla-eta aldatzea, ebazpena adostea eta horren ondorioak zehaztea, betiere Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrek xedatutako mugen barruan eta baldintzei eta ondorioei erreparatuz.

## **II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA**

### **16. ESLEIPEN-PROZEDURA**

Kontratu hau prozedura irekiaren bitartez esleituko da.

Eskaintzak balioztatzeko irizpideak, kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko direnak, honakoak dira:

#### **Irizpide objektiboak:**

1. irizpidea.- Proposamen ekonomikoaren zenbatekoa. 40 punturen gainean balioztatuko da.

2. irizpidea.- Hornidura hobetuko duten beste prestazio batzuk 10 punturen gainean balioztatuko da.

#### **Irizpide subjektiboak:**

3. irizpidea.- Hornitu beharreko ekipoaren ezaugarri teknikoak. 50 punturen gainean balioztatuko da.

1. IRIZPIDEA, objektiboa.- Proposamen ekonomikoaren zenbatekoa.  
Oinarritzakoa baino garestiagoa den proposamenik ez da onartuko. Proposamen ekonomikoa gutxienez 0 puntuz eta gehienez 40 puntuz balioztatuko da.

Gehieneko puntuak (40 puntu) beherapen handiena duen eskaintza onartuari emango zaizkio eta "A beherapena" esango zaio. "B" bestelako edozein proposamen honako formularekin bat haztatuko da:

$$\text{Puntuak} = 40 \times (\text{Eskaintza ekonomikorik merkeena/Eskaintza ekonomikoa balioztatzeke})$$

2 IRIZPIDEA, objektiboa.- Hornidura hobetuko duten beste prestazio batzuk.

Atal honetan hurrengoak balioetsiko dira: laguntza teknikoaren eta mantentze-lanen zerbitzua, eskaintzaileek emandako bermea eta hornidura-epa murriztea, bermearen aldia zabaltzea. Gehienez 10 puntu emango dira ondorengo moduan banatuak:

- Bermea zabaltzea: gehienez 5 puntu.

Urtebete: 0 puntu  
2 urte: 1 puntu  
3 urte: 2,5 puntu  
4 urte: 4 puntu  
5 urte: 5 puntu

- Lantegian laguntza teknikoaren konpromisoa, betiere Gipuzkoako probintziaren barruan: gehienez 2 puntu.

Lanaldi berean: 2 puntu  
24 orduren buruan: 1 puntu  
24 ordu baino gehiagotan: 0 puntu

- Horniduraren epea murriztea: gehienez 3 puntu.

0,25 puntu emango dira horniduraren gehieneko emate-epa murrizten den aste bakoitzeko.

3. IRIZPIDEA, subjektiboa.- Ekipoaren ezaugarri teknikoak.

Irizpide honetan hornitu beharreko ekipoaren ezaugarri teknikoetatik atera daitezkeen ondorioak eta kalitatea kontuan hartuko dira. Halaber, erresistentziaren, segurtasunaren, sendotasunaren, garbitasunaren eta iraunkortasunaren baldintza egokiekin diseinatutako helburuarekiko moldapenari erreparatuko zaio. Gehienez 50 puntu emango dira hurrengo irizpideen arabera banatuak:

- XASISA: 15 PUNTU



- Potentzia eta zilindro-bolumen handiagoa. Gehieneko pareta eta b/min gutxiago.
- Erregaiaren kontsumoa, CO<sub>2</sub>-ren igorpenak.
- dB(A) zarataren igorpenak.
- Ardatzen arteko distantzia txikiagoa, biraketa-erradio gutxiago.
- Frenatzea- eta esekidura-sistema.
- Erosotasuna: erregula daitezkeen bolantea eta eserlekuak, airea girotzeko sistema, etab.

• KAXA: 35 PUNTU

- Kaxa. Materialak, eraikuntza-ezaugarriak, lodierak eta sendotasuna.
- Igotzeko multzoaren prestazioak.
- Tobera eta trinkotze-organoak.
- Aginteak, eragiketa-zikloak, etab.
- Segurtasun-sistema eta bestelako ezaugarriak.
- Multzoaren neurriak.
- Ibilgailuaren erabilera optimizatzen duten prestazio osagarriak, orri teknikoetan definitutakoari jarraiki.

## **17. KONTRATAZIO-MAHAIA**

Kontratazio-mahaia ondorengo kideek osatuko dute:

MAHAIBURUA: Mankomunitateko lehendakaria

1. MAHAIKIDEA: Mankomunitateko idazkaria
2. MAHAIKIDEA: Mankomunitateko kontu-hartzailea
3. MAHAIKIDEA: Mankomunitateko Zerbitzuen teknikaria
4. MAHAIKIDEA: zuzendari-kudeatzailea

IDAZKARIA: Mankomunitateko administrari bat

## **18. KONTRATATZEKO GAITASUNA**

Kontratazio-prozedura honetan gaitasun juridiko eta jarduteko ahalmen osoa duten pertsona natural edo juridikoek parte har dezakete, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak 60. artikuluan kontratatzekeo xedatutako debekurik ez badute. Kaudimena 20. klausulako e) hizkian zehaztutako bitartekoen arabera egiaztatu eta ebaluatuko da.

Era berean, berez edo baimendutako pertsonak aurkeztuta egin dezakete xede horretarako emandako ahalorde askietsiaren bidez.

Pertsona juridikoaren izenean kideren bat agertzen bada, horretarako gaitasuna duela dokumentuen bidez justifikatu beharko da. Bai kasu batean, bai bestean, ordezkariari lehen aipatu diren kontratatzeke ezintasun-arrazoiek eragiten dizkiote.

Halaber, enpresaburuek kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa egiteko eska daitekeen enpresa-gaitasun edo gaitasun profesionala izango dute.

## **19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA**

Kontratazioaren espedientea eta horrekin zerikusia duen dokumentazio teknikoa San Markoko Mankomunitateko bulegoetan (Donostiako Vitoria-Gasteiz kaleko 10. zenbakiaren etxabea) azter daiteke 8:00etatik 14:00etara, lanegun guztietan (larunbatetan izan ezik), lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasita, proposamenak aurkezteko epea amaitzen denera arte.

Proposamenak aipatu tokian eta ordutegian aurkeztuko dira, iragarkia bidali eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 20 egun naturaleko epean.

Era berean, lizitazioa kontratazio-organoaren kontratugilearen profileen argitaratuko da. Iristeko hurrengo atari informatikoa edo web orria erabili ahal izango da: [www.sanmarkos.eus](http://www.sanmarkos.eus)

Toki horretan bertan orriak eta dokumentazio osagarria lor daitezke.

Eskaintzaileek orriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio osagarria eskatuz gero, proposamenak hartzeko epemuga amaitu baino sei egun lehenago eskuratuko da, betiere eskaera gutxienez proposamenak hartzeko epemuga baino zortzi egun lehenago egin bada.

SPKLTBk 158.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, orriei edo dokumentazio osagarriari buruz informazio osagarria aipatutako epeetan ezin bada eskuratu, baita eskaintzak bakarrik lursailera bisita egin ondoren edo orriei erantsitako dokumentazioa bertan kontsultatu ostean egin behar bada ere, eskaintzak hartzeko epea luzatu egingo da komenigarritzat jotzen den denboran, hautagaiek eskaintza formulatzeko beharrezko informazio guztia ezagut dezaten.

Harrerarako finkatutako epez kanpo aurkezten diren proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen aurkeztu zirela jaso gelditu, Kontratazio Organoari telexa, faxa, telegrama edo posta elektronikoa bidali ez bazaio. Horretan postaz bidali zen egun

berean eskaintza bidali izan dela justifikatu behar da. Iragarkia posta elektronikoz bidaltzen bada, baliagarritasunari dagokionez, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrek 80.4. artikuluan xedatutakoari erreparatu beharko zaio.

## **20. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA**

Eskaintzaileek hiru gutun-azal itxi (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte eta bakoitzean honako inskribapena agertuko da: “SAN MARKOKO MANKOMUNITATERAKO HIRI HONDAKINEN EDUKIONTZIAK ATZETIK BILTZEN DITUEN IBILGAILUAREN HORNIDURAREN KONTRATAZIOAN PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena, baita proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak ere eta nola sinatzen duen ere agertuko dira. Gutun-azal guztiak sinatuak egongo dira.

**“A” gutun-azalak “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”** izenburua izango du eta honako dokumentuak agertuko dira:

a) Partaidearen edo ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakundearen izenean jarduten duenean, notarioaren ahalordea. Aipatutakoa erakunde honek askietsiko du gutun-azal honetan eskuratutako dokumentazioaren kalifikazio-prozesuan.

b) Eskaintzailea pertsona juridikoa denean, eratze- edo aldatze-eskritura, hala badagokio, behar bezala inskribatua Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskalaren zenbakia, merkataritza-legeria aplikagarriarekin bat inskribapena eskatu behar denean. Ez bada eskatu behar, jarduteko gaitasunaren egiaztatzea eratze-eskritura edo -dokumentuaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren bidez egingo da eta bertan agertuko dira jarduera arautzeko arauak, dagokion Erregistro ofizialean inskribatuak.

Enpresaburuak Europako Elkarteko Estatu kideetakoak direnean, baina ez Espainiakoak, kokatuta dauden Estatuko legeriaren arabera dagokion erregistroan duten inskribapena egiaztatu beharko dute. Bestela, zinpeko aitortzea edo ziurtagiria aurkeztu beharko dute, komunitateko xedapen aplikagarriekin bat.

Gainerako enpresaburu atzerritarrek jarduteko gaitasuna dagokion Estatuan Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-eremuko Bulego Kontsularraren txostenarekin egiaztatu beharko dute.

c) Kontratatzeko Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuak 60. artikuluan zerrendatutako debekurik ez izatea adierazten duen aitorten arduratsua. Berariaz aipatuko da zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak dituela, indarreko xedapenei jarraiki, bi azken hauei buruz egiaztapen-ziurtagiriak aurkezten diren kasuetan izan ezik.

d) JEZn kontratuaren xedeari dagokion epigrafean (6151, 6541, 6179) alta emana dagoela adierazten duen ziurtagiria. Horretarako alta aurkeztuko da ekitaldi honetakoa bada edo JEZren azken ordainagiria gainerako kasuetan. Bi kasuetan aipatu zergan baja ez emanaren aitorten arduratsua aurkeztuko da.

e) Eskaintzailearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoaren edo profesionalaren ziurtagiriak, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak 75. artikuluko a) hizkian eta 77. artikuluko f) hizkian xedatutako bitartekoak erabiliz. Aipatutako bitartekoei dagokienez, kontratu zehatz honetarako enpresek gutxienez ondorengo kaudimen-baldintzak bete beharko dituzte:

.- Kaudimen ekonomikoa egiaztatzeko, III. eranskineko ereduaren arabera erakunde finantzarioaren txostena aurkeztea nahikoa izango da. Nolanahi ere, horrek berariaz baieztatuko du aipatu kontratua gauzatzeko eskaintzailearen gaitasun finantzarioa. Bestela, arrisku profesionalengatik kalte-ordainaren aseguruia frogatzen duen agiria aurkeztuko da eta lizitazioaren prezioaren berdina edo hortik gorakoa izango da.

- Kaudimen teknikoa egiaztatzeko, azkeneko hiru ekitaldietako hornidura nagusien zerrenda aurkeztu beharko da, kontratuaren xedearen izaeraren antzekoak edo berdinak badira. Zenbatekoa, datak eta hartzaile publikoa edo pribatua adieraziko dira. Bai, xasisaren, bai kaxaren kasuan, behar bezala gauzatu dela adierazten duen ziurtagiriaren bitartez egiaztatuko da. Gutxienez bi bezerorenak izango dira, eskaintzaileak edo fabrikatzaileak zeharka, lotearen arabera, albotik edo atzetik jasotzeko ibilgailuak hornitu badizkie.

f) Enpresaburu batzuek Aldi Baterako Enpresaburuen Elkartearen osatzen badute, osatzen duen bakoitzak gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko du, aurreko puntuetan xedatutakoarekin bat eta, era berean, esleipendunak izanez gero, legez ABEEen osatzeko konpromisoa hartuko dute. Halaber, proposamenean ABEEren kide bakoitzak egingo duen xedearen zatia adieraziko dute, horien guztien kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

g) Enpresa atzerritarren kasuan, Espainiako Auzitegi eta Epaitegietako eskumenak betetzeari dagokion aitortpena kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako; eskatzaileari dagokion atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo zaio.

h) Prozeduraren ondorioz sortutako jakinarazpenak egiteko posta elektronikoaren helbidea, SPKLTBk 151.4. artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera eta horrek xedatutako ondorioetarako.

Aurreko a), b) eta e) hizkietan aipatutako gorabeherak Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren, Estatuko Eskaintzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren edo SPKLTBk 84. artikuluan xedatutakoarekin bat, sailkapen-ziurtagiri komunitarioaren bitartez egiazta daitezke. Ziurtagiriarekin batera eskaintzailearen aitortpen arduratsua aurkeztu beharko da, ziurtagirian azaldutako egoerek aldaketarik ez dutela izan adieraziz.

Aurreko atalean aipatutako ziurtagiria elektronikoki luza daiteke.

**“B” gutun-azalak “IRITZIEN ARABERAKO BALORAZIO-IRIZPIDEAK”** izenburua izango du eta iritzien arabera irizpideei buruzko dokumentuak izango ditu. Horiek orri honen 16. klausulan daude. Gutxienez honakoak izango ditu:

- Hornitu beharreko ekipoaren erakusgai, argazki eta deskribapen tekniko argiak eta zehatzak, baita hornidura definitzeko Orri Teknikoan beharrezkoak diren edo eskatzen diren datuak ere.
- Eskaintzak hobe ezagutu eta orri honen 16 klausularekin bat, eskaintzen balioztapen irizpideak betetzen direla egiaztatzeko egokitzen jotzen den beste edozein informazio osagarri.

**“C” gutun-azalak “BALIOZTAPEN-IRIZPIDE AUTOMATIKOAK”** izenburua izango du eta honako dokumentuak azalduko dira:

Proposamen ekonomikoa, ekipoari buruzko bermea, laguntza teknikoa eskaini eta horniduraren epea murrizteko konpromisoa, hori guztia I. Eranskinean xedatutako ereduarekin bat.

Eskatutako dokumentazio guztiaren originalak eta kopiak aurkeztuko dira, behar bezala konpultsatuak edo Administrazioak ala notarioak egiaztatuak. Era berean, dokumentazioa fotokopia sinplean aurkez daiteke, baina kasu horretan, lehenengo sailkatuak fotokopia horiek egiazkoak direla egiaztatu beharko du eta, horretarako, originalak aurkeztu beharko ditu.

## **21. DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA**

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako jarduerak egingo dira:

### **1. "A" GUTUN-AZALA IREKI ETA DUEN DOKUMENTAZIOA TRATATZEA.**

Mahaiak "A" gutun-azalean dagoen dokumentazioa kalifikatuko du. Xede horrez, eskaintzaileen gaitasun eta kaudimenari buruz argibideak edo dokumentu osagarriak eska daitezke eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrek 22. artikuluan xedatutakoari jarraiki, bost egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira. Argibideak edo informazio osagarria eskatu nahi izanez gero, Mahaiak ahoz jakinaraziko die interesatuei eta, aldi berean, kontratazio-organoaren iragarkien oholtzan iragarriko da, baita kontratugilearen profilean ere. Modu berean jakinaraziko ditu Mahaiak aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak, kasu honetan, Araudiaren 81. artikulua xedatutakoaren arabera, hiru lanegunetan eskaintzaileek aurkitutako akatsak konpondu edo zuzentzeko.

### **2. ENPRESAK HAUTATZEA**

Mahaiak aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu ondoren eta, hala badagokio, aurkitutako akatsak edo ahaztean konpondu ostean, hautespen-irizpideak betetzen dituzten enpresak zehaztuko ditu. Horiek orriaren 20. baldintzak e) hizkian xedatzen ditu. Berariaz aipatuko dira lizitazioan onartutakoak, baztertutakoak eta baztertzearren arrazoiak.

### **3. "B" GUTUN-AZALA JENDAURREAN IREKITZEA**

"B" gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, iritziaren araberrako irizpideak dituen, kontratugilearen profilean (&fAwww.sanmarkos.eus;) eta eskaintzaile onartuei faxez edo posta elektronikoz gauzatuko zaien jakinarazpenean adierazitako tokian, datan eta orduan egingo den egintzan irekiko da. Balioztatze arduratuko den organoari entregatuko zaio barruko dokumentazioa. Helburu horrekin, dokumentazio honetan akatsak edo ahazteak zuzendu behar badira, Mahaiak gehienez hiru lanegun emango ditu.

### **4. "C" GUTUN-AZALA JENDAURREAN IREKITZEA**

"B" gutun-azaleko dokumentazioa ireki eta balioztatu ostean, "C" gutun-azala jendaurrean irekiko da kontratugilearen profilean

adierazten den egun eta orduan. Helburu horrekin, dokumentazio honetan akatsak edo ahazteak zuzendu behar badira, Mahaiak gehienez hiru lanegun emango ditu.

Egintza honetan iritziaren araberako irizpideak aplikatu ondoren, eskaintza bakoitzari emandako balorazioa jakinaraziko da.

#### 5. ESKAINTZAK SAILKATZEA

Irizpide guztiak balioztatutakoan, Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatzeari egingo dio eta, horretarako, beheranzko ordenari erreparatuko dio. Kontratuaren esleipen-proposamena esleitu behar duen kontratazio-organoari egingo dio.

Kontratazio-organoak proposamen ekonomiko abantailatsuenari esleitzea erabakiko du, Administrazioa aseta bete daitekeela uste bada.

Jardundako guztia espedientean jasota geldituko da, hain zuzen ere, nahitaez idatzi behar diren aktetan.

#### 6. BIDEZKOA BADA, LEHENENGO SAILKATUARI ESKEA

Aurreko jarduerak egiten direnean, bidezkoa bada, lehenengo sailkatuari hamar laneguneko epean, eskea jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, honako ekintzak egin ditzan eskatuko zaio:

- a) Zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzarekin sortutakoak betetzen dituela justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztea edo horiek zuzenean lortzeko kontratazio-organoari baimena ematea. Ziurtagiriak proposamenarekin batera aurkeztu baditu, dokumentazio hori aurkeztea ez da beharrezkoa izango.
- b) Behin betiko bermea osatu izanaren justifikazio-dokumentazioa aurkeztea, hala badagokio.
- c) Proposamena osatzen duten gutun-azaletan fotokopia sinplean eskuratutako dokumentuen originalak aurkeztea.

Errekerimendu hori adierazitako epean bete ezean, lizitatzailleak bere eskaintzari uko egin diola ulertuko da, eta kasu horretan hurrengo lizitatzailleari eskatuko zaio dokumentazio berbera, eskaintzen sailkapeneko ordenari jarraituz.

## **22. ESLEIPENA, LEGEZTAPENA ETA GASTUAK**

Kontratazio-organoak kontratua proposamen abantailatsuena aurkezten duen eskaintzaileari esleitzea erabakiko du.

Esleipena bi hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Eskaintzaile guztiei jakinaraziko zaie eta Mankomunitate honen kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratua administrazio-dokumentuan legeztatuz burutuko da eta zehatz-mehatz beteko ditu lizitazioaren baldintzak. Aipatu dokumentua edozein erregistro publikora jotzeko nahikoa titulu izango da. Nolanahi ere, kontratistak eska dezake kontratua eskritura publikoan jasotzea, bere gain hartuta dagozkion gastuak.

Kontratua esleipen-jakinarazpena jaso eta hurrengo hamabost lanegunetan beranduen legeztatu beharko da.

Esleipenari buruzko jakinarazpenean aipatzen den epean, esleipendunak honako jarduerak gauzatu beharko ditu:

- a) Kontratua administrazio-dokumentuan legeztatzeko Administrazioan agertzea.
- b) Dagozkion aldizkarietan publizitate ofizialari buruzko gastuak ordaintzea. Gehieneko zenbatekoa 1.500 eurokoa izango da.

### **III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMEN AGINPIDEDUNA**

#### **23. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

Orri honetan oinarrituta egindako kontratua administratiboa izango da eta orri honek nahiz gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Aurrez ikusten ez den guztirako ondorengoak kontuan hartuko dira: 3/2011 Errege Dekretu Legegilea, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena; 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena; Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuz onartutakoa, 3/2011 EDLri kontra egiten ez dionean; 773/2015 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrari dagozkion zenbait arau aldatzen dituena; eta, kasuak kasu, herri-administrazioarekin kontratatzeko gainerako arau aplikagarriak.



Administrazio Baldintza Berezien Orriaren eta espedienteari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik izanez gero, Orrian xedatutakoa nagusi izango da.

## **24. DATU PERTSONALAK BABESTEA**

Kontratazio honen bidez datu pertsonalak lortu behar badira, kontratistak SPKLTBk Hogeita Seigarren Xedapen Osagarrian aipatutako betebeharrak bete beharko ditu 15/1999 Lege Organikoari, abenduaren 13koari, Datu Pertsonalak Babesten dituenari, eta bere garapen-araudiari buruz.

## **25. ESKUMEN AGINPIDEDUNA**

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai gatazkatsuak kontratazio-organoak ebatziko ditu eta bere erabakiek administrazio-bidea amaituko dute. Horien kontra zuzenean administrazioarekiko auzi-jurisdikzioan egin daiteke, alde batera utzi gabe SPKLTBk 40. artikulutik 49. artikulura araututakoari jarraiki, kontratazioaren arloan errekurtsio berezia jartzea. Horrez gain, 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, araututako bestelakoa jar daiteke.

Donostian, 2016ko apirilean

## **I. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA**

.....  
.....  
jaun/andreak, .....  
.....n helbidea duenak (PK: .....), ..... NAN  
zenbakiarekin, ..... telefono-  
zenbakiarekin eta l..... e-postarekin,  
legezko eta jarduteko gaitasun guztiak dituelarik, bere izenean  
(edo ..... ri ordezkatzuz  
(helbidea: .....;  
PK: .....; telefonoa: .....; NAN edo  
IFK (pertsona fisiko edo juridikoa izatearen  
arabera): .....), .....

.....  
kontratatzeko .....k deitutako prozedura irekiaz jakitun izanik, honakoa aitortzen du:

- 1) Kontratua arautzen duten Administrazio Baldintza Berezien Orria nahiz gainerako dokumentazioa ezagutzen dituela eta berariaz oso-oso onartu eta ontzat hartzen dituela.
- 2) Ordezkatzen duen enpresak indarreko araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela ireki, instalatu eta funtzionatzen jartzeko.
- 3) Hurrengo prezioan gauzatzeko konpromisoa hartzen duela: ..... euro, gehi ..... euro (% .. . . . ko BEZa) eta oinarrizko prezioan gastu guztiak, baita garraioari eta matrikulazioari buruzkoak ere sartuzat ulertu behar direla.
- 4) Hornitu beharreko ekiporako ..... urteko bermea eskaintzen duela.
- 5) .....n (tokia) laguntza teknikoa ..... orduko epean eskaintzeko konpromisoa hartzen duela.
- 6) Emate-epea ..... astekoa dela.

..... n, 20 .....ko .....aren .....(e)an

Sinadura

## II. ERANSKINA.- ERREGISTROAN PROPOSAMENA ENTREGATZEKO EREDUA.

..... jaun/andreak, ..... NAN  
zenbakiarekin, bere izenean edo, bidezkoa  
bada, ..... enpresaren izenean  
(IFZ: .....;  
helbidea:.....) jardunez,  
ondorengoa

### AZALTZEN DU:

Egun honetako .....e(t)an(\*) 3 gutun-azal entregatzen dituela eta honako lehiaketan parte hartzeko proposamena direla: "SAN MARKOKO MANKOMUNITATERAKO HIRI-HONDAKINEN EDUKIONTZIAK ATZETIK BILTZEKO IBILGAILUAREN HORNIDURA PROZEDURA IREKIZ ESLEITZEA".

Donostian, 2016ko .....aren .....(e)an

Sin.:  
(Aurkezlearen sinadura)

(\*) Erregistroko arduradunak betetzeke

SAN MARKOKO MANKOMUNITATEA

## III. ERANSKINA BERMEAREN EREDUA

.....k (merkataritza-izena), .....ko enpresa-  
bulegoak, .....n  
dagoenak, ..... jaun/andreak  
ordezkatutakoak, hurrengoa

ZIURTATZEN DU

..... (eskaintzailearen merkataritza-izena), ..... IFKrekin, egun .....ko enpresabulego honetan .....tik kontua mantentzen duela

Oso enpresa serioa dela idatziz jasoaz uzten dugu. Hala, une oro bere ordainketa-konpromisoak bete ditu eta gure iritziz prestigioa du. Berarekin merkataritza-harremanak ezar daitezkeelakoan gaude. Ildo horri eutsiz, kaudimen ekonomiko eta finantzario nahikoa du, 3/2011 Errege Dekretu Legegileak, azaroaren 14koak, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak, 62. eta 75. artikuluetan xedatutakoarekin bat, SAN MARKOKO MANKOMUNITATERAKO HIRI HONDAKINEN EDUKIONTZIAK ATZETIK BILTZEKO IBILGAILUARI BURUZKO HORNIDURAREN kontratua San Markoko Mankomunitatearekin (IFK: P2000015D) gauzatzeko, Administrazio Baldintza Berezien Orrian xedatutakoaren babesean.

Konpainia interesdunak eskatu ostean, idatziz jasoaz gelditzeko, ziurtagiri honek banku-bermearen izaera izan gabe, merkataritza-erreferentzia hutsa baizik, dokumentu hau egin dut ....., 20.....ko .....aren .....(e)an

Sinadura

PLIEGO DE CLÁUSULAS ECONÓMICO-ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA EL SUMINISTRO, POR PROCEDIMIENTO ABIERTO, DE UN VEHÍCULO DE RECOGIDA DE CONTENEDORES CARGA TRASERA DE RESIDUOS URBANOS PARA LA MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS.

**CUADRO DE CARACTERÍSTICAS**

KONTRATUAREN XEDEA/OBJETO DEL CONTRATO	KODEA/Codificación
SUMINISTRO DE UN VEHÍCULO DE RECOGIDA DE CONTENEDORES CARGA TRASERA PARA RESIDUOS DE PAPEL-CARTÓN Y ENVASES LIGEROS PARA LA MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS.	CPV:34144512-0 Vehículos compactadores de basuras.

**AURREKONTUA/PRESUPUESTO**

Zifratan/en cifra	Letratan/en letra
145.000 € (IVA no incluido)	Ciento Cuarenta y Cinco mil euros (IVA no incluido)

**URTEKOAK/ANUALIDADES**

Ekitaldia/ejercicio	Zenbatekoa/importe	Aurrekontu xedapena Aplicación presupuestaria
2016	145.000 € (IVA no incluido)	1 0000.624.162.10.01 2016

**BURUTZE EPEA/PLAZO DE EJECUCIÓN ATZERAPEN ZIGORRAK/PENALIDADES POR DEMORA**

SEIS (6) MESES	Penalidades diarias EN LA PROPORCIÓN DE 3 € POR CADA 1.000 € DEL PRECIO DEL CONTRATO
----------------	--

**PREZIOEN BERRIKUSPEN FORMULA/ FORMULA DE REVISIÓN DE PRECIOS**

NO PROCEDE
------------

**BERMEAK/GARANTÍAS**

Behin-Behinekoa/ Provisional	Behin-Betikoa/ Definitiva
NO PROCEDE	5 POR 100 DEL IMPORTE DE ADJUDICACION

**ENKANTEKO PUBLIZITATEKO GEHIENEZKO GASTUEN ZENBATEKOA/IMPORTE MAXIMO DE LOS GASTOS DE PUBLICIDAD DE LA LICITACIÓN**

El importe máximo a satisfacer por la publicación se establece en 1.500 euros.
--

**OINARRIZKO PROPOSAMENA ETA HAUTABIDEAK/PROPUESTA BASE Y ALTERNATIVAS**

Onarpena/Admisión	Betebeharrak, modalitateak eta aspektuak/Requisitos, modalidades y aspectos
NO	

**ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK/CRITERIOS PARA LA ADJUDICACIÓN**

<b>Criterio</b>		<b>Ponderación</b>
1.-	Cuantía de la proposición económica.	hasta 40 puntos
2.-	Otras prestaciones que mejoren el suministro.	hasta 10 puntos
3.-	Características técnicas del equipo a suministrar.	hasta 50 puntos

**ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA/ SEGURO DE RESPONSABILIDAD CIVIL**

NO APLICA
-----------

**BERME EPEA/PLAZO DE GARANTÍA**

MÍNIMO DE UN (1) AÑO
----------------------

**BESTELAKO BALDINTZAK/ OTROS REQUISITOS**

-----
-------

Aprobado por resolución de Presidencia nº 22/2016 de fecha 5 de mayo de 2016.

DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 6 de mayo de 2016.

EL SECRETARIO DE LA MANCOMUNIDAD,

Izp./Fdo.: Xabier Loiola Aristi.

## **INDICE**

### **CAPÍTULO I.-CONTENIDO DEL CONTRATO.....**

1.- OBJETO DE L CONTRATO.....	
2.- PLAZO DE EJECUCIÓN.....	
3.- PRESUPUESTO DEL CONTRATO.....	
4.- FINANCIACIÓN.....	
5.- FORMA DE PAGO.....	
6.- REVISIÓN DE PRECIOS.....	
7.- GARANTIAS .....	
8.- EJECUCIÓN DEL CONTRATO.....	
9.- OBLIGACIONES LABORALES DEL CONTRATISTA.....	
10.- RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA.....	
11.- MODIFICACIONES DEL CONTRATO.....	
12.- RECEPCIÓN DEL SUMINISTRO Y PLAZO DE GARANTÍA.....	
13.- PENALIDADES AL CONTRATISTA POR INCUMPLIMIENTO.....	
14.- CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO.....	
15.- PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN.....	

### **CAPÍTULO II.- CONTRATACIÓN.....**

16.- PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN.....	
17.- MESA DE CONTRATACIÓN.....	10
18.- APTITUD PARA CONTRATAR.....	10
19.- LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE LAS PROPOSICIONES.....	10
20.- FORMA DE PRESENTACIÓN DE LAS PROPOSICIONES.....	11
21.- CALIFICACIÓN DE DOCUMENTOS, SELECCIÓN Y APERTURA DE PROPOSICIONES.....	14
22.- ADJUDICACIÓN, FORMALIZACIÓN Y GASTOS.....	16

### **CAPÍTULO III.- NATURALEZA, RÉGIMEN Y JURISDICCIÓN.....**

23.- NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO.....	17
24.- PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL.....	17
25.- JURISDICCIÓN COMPETENTE.....	17

**PLIEGO DE CLÁUSULAS ECONÓMICO-ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA EL SUMINISTRO, POR PROCEDIMIENTO ABIERTO, DE UN VEHÍCULO DE RECOGIDA DE CONTENEDORES DE CARGA TRASERA DE RESIDUOS URBANOS PARA LA MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS.**

**I. CONTENIDO DEL CONTRATO**

**1. OBJETO DEL CONTRATO**

El contrato que en base al presente pliego se realice, tiene como objeto la contratación del suministro y carrozado de un vehículo recolector/compactador para recogida de residuos en contenedores de carga trasera, con caja fija de 12 m<sup>3</sup> de capacidad y destinado a los servicios de recogida de papel-cartón y envases ligeros del hogar que la Mancomunidad de San Marcos tiene implantado en el ámbito urbano competencial, de conformidad con el presente Pliego y con las especificaciones contenidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas.

